

Funtsezko jarduerak

Gure enpresaren muina osatzen duen funtsezko jarduera ekoizpena da.

Izan ere, manufaktura-enpresa bat da, hau da, diseinu pertsonalizatuz apaindutako tapak diseinatzeko, ekoizteko eta entregatzeko betekizunak ditu. Beraz, kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen jarduera bat da.

Hala ere, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta on-line denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere. Gure produktuaren salmenta iturria hasiera batean tabernak izango dira baina aurreratzean arrakasta izaten badu on-line denda zabalduko dugu.

Beste funtsezko jarduera bat publizitatea da. Publizitatea kamisetekin eta sare-sozialetan irudiak ipiniz egingo dugu.

Baina beste pertsona batzuen bidez ere egin daiteke publizitatea haien iritzia partekatuz. Askotan pertsona horiek sare-sozialen bidez zabaltzen dituzte produktuei buruzko iritzia. Horretarako kolaboratzaile batzuen esku utzi dezakegu jarduera, "influencer-en" eskuetan hain zuzen ere. Hasiera batean ez dugu hori egingo baina diru nahikoa lortzen badugu hau praktikan jarriko dugu aurrerago.

